

Komisioen tarifak, baldintzak eta bezeroei jasanaraz daitezkeen gastuak

2021.04.06etik indarrean

10. EPIGRAFEA ORDAINKETA ZERBITZUAK: KONTU KORRONTEAK ETA AURREZKI KONTUAK

Epigrafe honetan jasotzen diren tarifak gehienekoak dira, eta kontsumitzaile diren zein ez diren bezeroei aplikatzen zaizkie.

ZEHAZTAPENA	BALIOA	OHARRAK
1. Kontu korronteak eta aurrezki kontuak		
1.1 Zorpekoak.		
1.1.1 Zorpekoen gaineko irekitze-komisioa (Ikus 1. oharra)	%4,50	Gutxienez 15,00 euro
1.1.2 Zorpekoa erregularizatzegatikoko gastua. (Ikus 2. oharra)	30,00 euro	
1.2 Kontuen mantentze zerbitzua.		
1.2.1 Kontuen mantentze-komisioa, oro har. (Ikus 3., 4. eta 7. oharrak)	160,00 euro	Urteko, kontu bakoitzeko
1.2.2 Lotutako kontuen mantentzeagatikoko komisioa (Ikusi 5. oharra)	120,00 euro	Urteko, kontu bakoitzeko
1.2.3 Ordainketa kontu jakin batzuen komisioak		
1.2.3.1 Negozioak kontua	12,00 euro	Hileko, kontu bakoitzeko
1.2.3.2 Enpresen transakzio kontua	35,00 euro	Hilero, kontu bakoitzeko
1.2.3.3 Likideziaren kontua (Ikus 6. oharra)	hileko batez besteko saldoaren gaineko %0,025	Hilero, kontu bakoitzeko
1.2.3.4 Bezero Handien kontua (Ikus 6. oharra)	hileko batez besteko saldoaren gaineko %0,048	Hilero, kontu bakoitzeko
1.3 Administrazioiko komisioa. (Ikus 7. eta 8. oharrak)	0,60 €, idazpen bakoitzeko	
2. Saldorik gabeko karguen arreta puntualagatikoko komisioa (Ikus 9. oharra)	2,00 euro, eragiketa bakoitzeko	

ZEHAZTAPENA	BALIOA	OHARRAK
3. Kontuko mugimenduen informazio arautuarengatik komisioa, bezeroak eskatua denean eta dagokion kontratuaren esparruan aldiro ezartzen diren etik kanpo. (Ikus 10. eta 11. oharra)	Idazpen bakoitzeko	Prozesuko gutxienekoa
3.1 Ohiko laburpena Bezeroak eskatuta:	Salbuetsita	Salbuetsita
3.2 Bulegoan eskatutako laburpenagatik	5,00 euro	
3.3 Euskarri magnetikoan kontuaren laburpen gehigarria (Ikus 12. oharra)	0,002 euro	60,10 euro
3.4 Interkonexioko, terminalean.	Dokumentuko	150,25 euro/hilean (finkoa) 36,06 euro/orduko (aldakorra)
4. Indarrean dagoen legeriaren arabera Espainiako Bankuari jakinarazi beharra dagoen mugimenduak (zordunketak eta abonua) jakinarazteagatik.	6,01 euro (Behin)	
5. Dirua leihatilan atzeratzeko zerbitzuagatik komisioa (ikus 13. oharra)	2,00 euro	
6. Kontua helbideratuta den bestelako plaza batean txeki bidez egiten diren ordainketetan, sinadura eta funts-zuzkiduraren egiaztapenarengatik gastuen kontzeptuagatik.	3,00 euro	
7. Gurutzatu gabeko taloitegia jaulkitzeagatik komisioa (ikus 14. oharra)	3,00 euro	
8. Bezeroa titular ez den kontuetan dirua sartzeagatik komisioa (ikus 15. oharra)		
8.1 Leihatila	3,00 euro	
8.2 Kutxazaina	1,00 euro	

1. OHARRA Zorpekoan xedatzeko baimena aukerakoa da Bankuarentzat, eta hitzartutako baldintza eta epeei jarraituz baimena ematen badiu, Bankuak eragiketa mota horientzat argitaratutako interes-tasa sortuko du.

Kontu korranteetako zorpekoak kreditu-eragiketatzat hartuko dira ondorio guztietarako, eta komisioa likidazioaldi bakoitzean kontuan izan duen kontabilitate-zorpekoaren saldirik handienaren gainean aplikatuko da, bere gutxienekoarekin, eta interesen likidazioarekin batera jasoko dira.

Kontsumoko kreditu kontratuei buruzko ekainaren 24ko 16/2011 legean ezarritakoari jarraituz, kontsumitzaileen kontuko zorpekoetan ezingo da aplikatu diruaren legezko interesaren halako 2,5 baino gehiago den urteko tasa baliokidea baino handiagoa.

2. OHARRA BBVAk bezeroari jakinaraziko dio kontuan funts ez badago, mezuak bidalita BBVAren app-aren bitartez, www.bbva.es webgunearen bitartez, posta elektronikoz, bere telefono mugikorrerako mezuaz, posta arruntez, telefonoz, gure bulegoen gestioez edo BBVAren laguntzaileez. Bankuak saldo positibo bat izateko beharra gogoraraziko dio bezeroari, kalte ekonomikorik ez dezan izan. Bankuak zorpekoaren erregularizatzegatik gastua kobratuko dio, aipatu gestio horien konpentsazio gisa. Gastua behin bakarrik kobratuko du, salbo berri bakoitza erreklamatzeko egindako gestioengatik.

3. OHARRA Kontuaren mantentze-zerbitzua kontua irekita eta aktiboan eta zure dirua gordez edukitzean datza. Zerbitzu horrengatik, Bankuak komisio bat kobratzen du, Kontuaren Bezeroentzako Oinarriko Diruzaintza Zerbitzua ere barne hartzen duena, hau da:

- Kontuaren titulardunak diren bezeroek eta kontuko baimendunek zein ordezkariak esku-dirua sartu ahalko dute kutxazain automatikoetan eta baita leihatila-zerbitzua duten bulegoetan ere, horretarako ezarritako ordutegian.

Beste pertsona batzuk leihatilan edo kutxazain automatiko batean eskudirutan egiten dituzten diru-sarrerak ez dira barne Oinarrizko Kutxa Zerbitzuan, eta beraz, komisio bat kobratuko da pertsona horiei eskaintzen zaien zerbitzuagatik. Komisio hori diru-sarrera egin aurretik jakinaraziko da.

- Bezeroak kutxazainetik esku-dirua ateratzea, txartelaren xedapenaren mugaraino. Muga horretatik gorakoa leihatilan atera beharko da, zerbitzu hori duten bulegoetan, horretarako jarritako ordutegian.

Oinarrizko Kutxa Zerbitzuan ez da barne leihatilan 2.000 € arteko esku-dirua ateratzea. Horregatik, leihatilan eskudirutan 2.000 € edo gutxiago ateratzen den bakoitzean komisio bat kobratuko da leihatilan eskudirua ateratzeko zerbitzu horrengatik (hortik gorako zenbatekoengatik ez dizugu kobratuko). Komisio hori eskudirua erretiratzeko den kontuan kargatuko da. Leihatilan eskudirutan egindako ateratzeak ez dira barne Oinarrizko Kutxaren Zerbitzuan, eta beraz, ez daude sartuta mantentzeagatik komisioan (ikus "Leihatilan eskudirua ateratzeko zerbitzuagatik komisioa").

Kutxazain automatikoan egiten diren diruzko ateratze eta sarrerak soilik billetetan egin ahalko dira.

Mantentzeagatik komisio hori Bankuaren eta Bezeroaren artean hitzartzen da. Hortaz, ez dira barne eskudirutan diru-sarrera egiten den kontuko pertsonak titularrak, baimenduak eta kontuaren ordezkariak ez direnean (leihatilaz egiten denean), edo BBVAren bezero ez diren edo halakotzat identifikatzen ez diren pertsonak (diru-sarrera kutxazain automatikoz egiten denean) egindako konturako diru-sarrerak.

4. OHARRA Mantentze-komisioagatik zorpekoak konturaren aldizkako likidazioarekin batera kobratuko dira, eta likidazioaldiaren proportzioan.

Zehaztutakoez bestelako interesak likidatzeko aldiak hitzartzen badira, aldi bakoitzeko komisioa horren zenbatekoa urteko aldi kopuruaren arabera banatuz aterako da.

5. OHARRA Lotutako kontuak dira beste banku-kontratu baten beharrei erantzuteko soilik erabiltzen direnak, eta 120 euroko gastua izango du urtean. Kostu hori ez da aldatuko kontuaren kontratua indarrean dagoen bitartean. Beste eragiketa mota batzuetarako erabiltzen bada, 1.2.1 eta 1.3 ataletan aipatutako lotu gabeko kontuetarako ohiko komisio-tarifak aplikatuko ditugu.

6. OHARRA Kontuaren mantentzeagatik komisioa kontuaren hileko likidazio-aldiaren batez besteko saldoaren ehunekoaren arabera kalkulatu da. Kontuaren batez besteko saldoa, likidazioaldian, kontuak egunaren amaieran mugimenduen balio-datan oinarritutako saldoak kontuan hartuta kalkulatu da, eta ez eragiketa bakoitzaren kontabilitate sarrera-datan.

7. OHARRA Zerbitzu horren bidez, Bankuak kontuan erregistratzen du bezeroak horretaz egiten duen erabilera, idazpen eta mugimenduen bidez. Zerbitzu horrengatik, Bankuak komisio bat kobratzen du kontua erabiltzeagatik egindako idazpen edo mugimendu bakoitzeko, honako hauetan izan ezik:

- Kontuaren titularraren diru-sarrerak (Oinarrizko Kutxa Zerbitzua).

- Kontuaren titularrak kutxazainetik esku-dirua ateratzea, txartelaren xedapenaren mugaraino (Oinarrizko Kutxa Zerbitzua).

- Kontuko dirua leihatilan ateratzea (edozein zenbateko).

- Zordun eta hartzekodun interesak likidatzea, komisioen zorpekoak eta gastuen jasanarazpenak

- BBVA maileguen abonua eta karguak.

Administratze-komisioarengatik zorpekoak kontuaren aldizkako likidazioarekin batera kobratuko dira.

8. OHARRA Kuota horren kobraketa bateraezina da 22. Epigrafean "MULTZOKATUTAKO ZERBITZUAK - KONTUAK ARGI" izenekoan aurreikusitako hileko komisioarekin.

9. OHARRA Kargua ezin izan denean automatikoki egin, kontuak nahiko saldorik ez duelako edo zorpekorako baimendutako muga gainditu delako. BBVAk ekintza gehigarri bat burutuko du, eta, ondorioz, kontuan karguak baimendu ditzake bertan saldorik egon gabe ere.

Kasu horretan, saldorik gabeko karguen arreta puntualagatik komisioa kobratuko da eragiketako, aurreko paragrafoan azaldutako kontingentzia gertatzen den hurrengo egunean. Salbu eta kontuaren saldoa, egunaren amaieran (21:00), positiboa bada.

Zerbitzu hori soilik titularrak/titularrek sortutako karguei aplikatzen da, honako kasu hauetan: eskudiruzko xedapenak kutxan, helbideratze-aginduak, helbideratu gabeko ordainagiriak, transferentziak eta intsuldaketak, zergen ordainketak, gizarte-segurantzaren kuotak, txeke edo ordaindukoen zordunketa, bankuko txeeen jaulkipenak, atzerriko monetaren salerosketa.

BBVAk zorpekoagatiko komisioa [ikus 1.1.1) atala] zerbitzuan sortutako interesak kobratuko ditu, saldirik gabeko karguen arreta puntualagatiko zerbitzuarenaz gain.

- 10. OHARRA** Dokumentu zehatz bat bidaltzea eskatzen duten kontuko mugimenduetan, gutuneria gisa aplikatuko da indarrean den posta-tarifari dagokion zenbatekoa, baldin eta mugimendua eragin duen eragiketan ez bazen kobratu.
- 11. OHARRA** "Informazio aratuari" dagokion tarifak soilik Bankuen Kontseilu Gorenak edo, hala badagokio, Espainiako Banku Priatuaren Elkarrekin araututako formato eta prozeduretan informazioa helaraztea hartzen du barne.
- 12. OHARRA** Bezeroak eskainiko du informazioa emateko euskarri magnetikoa, edo, bestela, euskarri horren prezioa jasanaraziko zaio.
- 13. OHARRA** Esku-hartzaileek kontuko esku-dirua BBVAren bulego bateko leihatilatik ateratzeko aukera ematen duen zerbitzua da, kutxazain automatikoaren ordezkari modura. Zerbitzu horrengatik, BBVAk komisio bat kobratzen du leihatilan 2.000 euroko edo hortik beherako ateratzeengatik (hortik gorako zenbatekoengatik ez da kobratzen). Zerbitzu hori emateagatiko komisioa xedepanea egiten den kontuan kargatuko da.
- 14. OHARRA** Komisio hori ez da aplikatzen taloitegi gurutzatuak jaulkitzeagatik.
- 15. OHARRA** Komisio hori aplikatzen da diru-sarrera egiten den kontuan esku-hartzaile gisa ageri ez diren, BBVAren bezero ez diren edo bezero modura identifikatzen ez diren (diru-sarrera kutxazain automatikoan egiten denean) pertsonen kontuan (leihatilan) egindako diru-sarrei. Zerbitzu hau emateagatiko komisioa diru-sarrera egiten duenari kobratzen zaio, aldez aurretik jakinarazita.

Kontuko "esku-hartzaileak" direla ulertuko da titularrak, baimenduak eta ordezkariak.